




**AUTOBUSEZ JOATEKO**
16. linea. Maiztasuna: 12 minutuko
21. linea. Maiztasuna: 30 minutuko

**HITZORDUA**
**T** 902 25 55 53
www.vinsanavarra.es

**AURKEZTEKO EPEA**
Azaroaren 9tik eta 21era artekoa
(hitzorduarekin)

**ORDUTEGIA**
Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 20:00etara.
Larunbatetan, 09:00etatik 14:00etara.

**TOKIA**
VINSAREN BULEGOAK
“Vialogar” eraikina. Zaragozako errepidea, 3. kilometroa
(Diario de Navarra egunkariaren parean).

vinsa
Viviendas de Navarra S.A.



ETXEBIZITZA ALOKATZEKO KANPAINA. 2009

# 51 ETXEBIZITZA ALOKATZEKO SARRIGUREN

ERREGIMEN BEREZIA

## ETA ALOKAIRU POLTSAKO ETA VINSA-KO ETXEBIZITZA ERABILIAK

vinsa
Viviendas de Navarra S.A.

# SARRIGUREN | 51 etxebizitza E. Berezian








Etxebizitza adibidea:
89,89 m² erebilgarri

# ALOKATZEKO

## 51 ETXEBIZITZA BABESTU

ERREGIMEN BEREZIAN

### ETXEBIZITZA HAUEK ESKATU AHAL IZATEKO BALDINTZAK

- **2008ko** ekitaldiko ERRENTAREN AITORPENA

**GUTXIENEKO DIRU SARRERAK:**

3.000 euro (2008ko errenta aitorpeneko zerga oinarriaren parte orokorra, gehi salbuetsitako errentak).

Mugitzeko elbarritasun larria dutenentzat, %65eko edo gehiagoko elbarritasuna aitorturik dutenentzat eta genero indarkeriaren biktimentzat gordeta dauden etxebizitzetarako eskaera egiten dutenek ez dituzte gutxieneko diru sarrerak egiaztatu behar.

GEHIENEKO DIRU SARRERAK:

| Zerga oinarriaren parte orokorra (eurotan), gehi 2008ko salbuetsitako errentak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Familia unitatea** | **IPREM* halako 2,5** (1) | **IPREM* halako 3,5** (2) | **Familia unitatea** | **IPREM* halako 2,5** (1) | **IPREM* halako 3,5** (2) |
| Pertsona 1 | 21.384,75 | 29.938,65 | 5 pertsona | 31.042,38 | 43.459,33 |
| 2 pertsona | 25.661,70 | 35.926,38 | 6 pertsona | 33.183,24 | 46.456,53 |
| 3 pertsona | 27.494,68 | 38.492,55 | 7 pertsona | 35.641,25 | 49.897,75 |
| 4 pertsona | 29.161,03 | 40.825,44 | 8 pertsona | 38.492,55 (1) | 53.889,57 (2) |

2008KO ***IPREM**: 7.236,60
Ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa

Gehieneko diru sarrerak Sarrigurengo 51 bizitzen sustapenerako.
Gehieneko diru sarrerak Alokairu Poltsako etxebizitzetarako.

- Etxebizitzaren baten titularra edo zati alikuota ez izatea, edozein tokitan dagoela ere, eta azken bost urteotan etxebizitzarik eskualdatu ez izana, 8/2004 Foru Legean eta 4/2006 Foru Dekretuan jasotzen.
- Nafarroan erroldatuta egotea.

### ESLEIPEN PROZEDURA

- Etxebizitzak puntuazio ordenari jarraiki esleituko dira eta kontuan hartuta etxebizitzak egokia izan behar duela familia unitatearen osaerara, 4/2006 Foru Dekretuaren 20. artikuluan erabakitakoaren arabera.
- Berdinketa gertatzen bada, familian diru sarrera ponderatu txikienak dituzten eskatzaileei mesede egiteko irizpidearen arabera erabakiko da.
- Esleipen bakarra eginen da eskatzaile bakoitzeko. Hutsik geratzen diren etxebizitzak itxaron zerrendakoei eskainiko zaizkie.
- Esleipendun izanez gero, honako hauek aurkeztu behar dira:
  - Hiru errenta hilerokoren abala.
  - Hileroko baten baliokide den berme bat jarri izanaren ziurtagiria.

### HILEKO ERRENTAREN ADIBIDEAK

| | | Diru-laguntzekin (euro) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako zenbat | | | |
| | | ≥ 1,40tik eta < 1,70 | ≥ 1,00 eta < 1,40 | < 1,00 | |
| **Etxebizitzaren azalera (m²)** | **Diru-laguntzarik gabe** (euro) | **%25** | **%50** | **%75** | **%90*** |
| 53,00 | 398,14 | 298,61 | 199,07 | 99,54 | 39,81 |
| 85,00 | 582,78 | 437,09 | 291,39 | 145,70 | 58,28 |
| 100,00 | 669,33 | 502,00 | 334,67 | 167,33 | 66,93 |

Errenta horiek etxebizitzari lotutako garajea eta trastelekua barne hartzen dituzte
* Diru-laguntza genero indarkeriaren biktimei dagokie alokairuko lehen urtean. Bigarren urtean %75ekoa izanen da diru-laguntza.

## ALOKAIRUKO ERREGIMEN BEREZIARI APLIKATZEKO BAREMOA

**1. ETXEBIZITZAREN PREMIA** (Ezin zaio bata besteari gehitu).

Lor daitekeen puntu kopuru handiena: **55 puntu**. Etxebizitza premiaren atal desberdinetako puntuak ezin dira gehitu. Puntu gehien dagokion atalaren arabera bakarrik lortu ahal izango ditu puntuak eskaera bakoitzak.

a) Familiaren osaerarako azalera egokia ez duen etxebizitza baten titularra izatea alokairuan edo jabetzan eta bertan bizi izatea, urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuaren 20. artikuluan ezartzen den moduan.
PUNTU KOPURUA..........55

b) Egun jakin batean utzi beharreko etxebizitza batean bizitzea, titularrari ezin egotzi zaizkion arrazoiak direla medio, errentamendu kontratuaren legezko epea edo errentariaren esku dauden luzapenak amaitzeagatik ez, bestelako arrazoiengatik. Frogatu egin beharko da etxebizitza horretan bizi izan dela etxebizitza berria eskatu aurreko hiru urteetan gutxienez.
PUNTU KOPURUA..........53

c) Sarbidean eskailerak dituen eta igogailurik ez duen etxebizitza baten titular edo errentaria izan eta bertan bizi izatea eskabidea aurkezten den egunaren aurreko hiru urteetan gutxienez, eta eskatzailearen familia unitateko norbaitek mugitzeko %40tik gorako elbarritasuna izatea.
PUNTU KOPURUA..........51

**1988ko urriaren 14tik edo lehenagotik** bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituen etxebizitza batean jarraian bizi izatea.
PUNTU KOPURUA..........49

e) Etxebizitza baten jabe ez izatea azken 5 urteetan:
**1. Etxebizitza alokairu kontratu baten titularra izanik:**
- Errenta adierazpenean kenkaria izanik
PUNTU KOPURUA..........47

- Errenta adierazpenean kenkaria izan gabe
PUNTU KOPURUA..........45

**2. Familiako beste batzuen etxean bizi izan bada.**
PUNTU KOPURUA..........43

**3. Utzitako etxebizitza bat okupatzen egotea.**
PUNTU KOPURUA..........35

f) Etxebizitza baten jabetza osoa edo partziala edukitzea edo azken 5 urteetan eduki izana eta etxebizitza hori legez ezin erabili izatea, inork erabilerarako eskubidea edo usufruktua duelako bizi artean edo bi urtetik gorako aldirako.
PUNTU KOPURUA..........30

g) 1988ko urriaren 14tik aurrera, eta etxebizitza berria eskatu aurreko hiru urteetan gutxienez, bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituen etxebizitza baten titularra izatea jabetzan edo alokairuan eta bertan bizi izatea.
PUNTU KOPURUA..........25

**2. INGURUABAR PERTSONALAK ETA FAMILIARENAK**
Lor daitekeen puntu kopuru handiena: **75 puntu.**

a) Eskatzailearen familia unitateko kideen kopurua. Bakoitzeko:
PUNTU KOPURUA..........10

b) Eskatzaileak familia unitateko kide dituen urritu fisiko edo psikiko bat edo gehiago, %33ko elbarritasunarekin edo handiagoarekin.
Eskatzailea bera kenduta.
PUNTU KOPURUA..........5

c) 65 urte baino gehiago edo 35 baino gutxiago dituzten eskatzaile bat edo gehiago.
PUNTU KOPURUA..........5

d) Eskatzailearekin bizi eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenean kenkarirako eskubidea duten lehen gradu arteko aurreko bat edo gehiago, odolkideak nahiz ezkontza bidezko ahaideak izan.
PUNTU KOPURUA..........7

e) Legez elbarri izaera duten eskatzaile bat edo gehiago. Elbarritasun graduaren araberako tarteak ezarri ahal izanen dira:
1. >%33 eta < %65.
PUNTU KOPURUA..........6

2. ≥ %65.
PUNTU KOPURUA..........7

**3. FAMILIAREN DIRU SARRERA PONDERATUAK.**
Lor daitekeen puntu kopuru handiena: **15 puntu.**

a) 3.000-tik IPREM halako 1 arte
PUNTU KOPURUA..........5

b) IPREM halako 1 eta 1,4 bitarte
PUNTU KOPURUA..........15

c) IPREM halako 1,4 baino gehiago
PUNTU KOPURUA..........10

**4. BALORATZEKO BESTE KONTZEPTU BATZUK**

a) Nafarroan erroldatuta egotea etengabe, duela 7 urte baino gehiagotik.
PUNTU KOPURUA..........10

b) Nafarroan erroldatuta egotea etengabe, duela 4 urte baino gehiagotik baina 7 urte baino gutxiagorik.
PUNTU KOPURUA..........5

**5. BALORAZIO-GEHIGARRIA, GENERO INDARKERIAREN BIKTIMENTZAT GORDETZEN DIREN ETXEBIZITZEN KASUAN: 10 puntu gehienez, aurreko ataletakoei batzen ahal zaizkienak erreserba horretan.**

a) Abegi etxe, pisu edo antzeko harrera-etxeetan bizi izana eskabideak aurkezteko epea amaitu aurreko sei hilabeteetan, gutxienez.
PUNTU KOPURUA..........10

b) Seme-alabaren bat edo gehiago izatea norberaren kargura.
PUNTU KOPURUA..........5

Aurreko a) eta b) letretako baldintzak foru dekretu honen 24. artikuluko 5. zenbakian ezarritakoari jarraikiz frogatuko dira.

**ERRESERBATUTAKO ETXEBIZITZAK**
Etxebizitza batzuk mugitzeko arazo larriak dituzten elbarrientzat, %65eko edo gehiagoko elbarritasun gradua aitortuta duten pertsonentzat, genero indarkeria jasan duten pertsonentzat eta familia ugarientzat daude erreserbatuta.